



BARREN
TOKIKOM

Zingaroa Argentinatik etxera



barrena 11, EIBAR

garajesGarcía.com

KUPOI HONEKIN

%10ko
deskontua
filtroetan



www.garajesgarcia.com
g.garcia@garajesgarcia.com

Eraburketa: 943 820 697

Lortzea: 943 202 214

943 127 271

4.500€



RENAULT SCENIC II

Motora: 1.5cm3 DCI Diesel

Kilometroak: 175.000

Egoera: Erabilta

11.500€



MAZDA CX7 LUXURY

Motora: Gasolina

Kilometroak: 141.000

Egoera: Erabilta

15.000€



HONDA ACCORD TOURER

Motora: 2200CM3 I4TEC Diesel

Kilometroak: 175.000

Egoera: erabilta

3.200€



VOLVO S80

Motora: 2.5CM3 TDE Diesel

Kilometroak: 220.000

Egoera: Erabilta

12.000€



SUZUKI JIMNY

Motora: 1500 CM3 DDIS Diesel

Kilometroak: 60.000

Egoera: Erabilta

21.000€



HONDA CIVIC

Motora: 1.6 CM3 I4TEC Diesel

Kilometroak: 5.000

Egoera: Karri

Badatoz santanak eta sanbartolomeak!



Barrenen publizitatea jartzeko:
943 744 112 edo barren.publi@elgoibarkoizarra.eus



JATETXEA

Santa Ana Kalea, 10 beheha

943 254 232

Eguneko Menua 11€

10 menuko txartela
erosteagatik

11. menua doan!



ARKAITZ IRURETA ARRIETA



“Baleike frantziarrak idealizatuta eukitzia, baiña ez dakitt danak zaku berian sartzerik dagan”

Aupa, Ibonse, *La France*-z hitz egin nahi dot beste behin. Nik foballaz ideiarik ere ez, baiña 2016ko Eurokopa Dragoi gorriek jokatu omen debe. Ez, ez dira *Rojiguayldak*, Galesko selekzioa baizik. Bitxixa, Euskal Herriko selekziuak lekurik ez daukan foro horretan estaturik gabeko beste nazio batek lekua edukitzia. Edozein kasutan, guriak ez ba-debe jokutzen, jokalarixak eta eskubiak lapurtu diguezenen alde egotia normalena, ezta?

Baiña ez dot foballaz eta bere liskarrez hitz egin nahi, hemengo komunikabidietan ikusi ez dogunaz baizik: *Mon ami, la France est en grève!*

Espainistanen galdu diran langilien eskubidiak ez galtzeko, Frantziako enfrontamenduak (batzutan bortitzak) ikusi dittut sare sozialetan. Horrekin batera, adibide on bat ere ikusi dot:

2.000 euro kobratzen zittuan espainiar bat, 100 euro ez gal-tzarren grebara juan ez, eta ondoren kaleratu zaben. Oin zorteko

dago lana aurkitu dualako, 950 euro kobratzen. Adin bateko hainbat langile lanipe eta gaztiak ere lan duin bat topatu ezinda.

Sentitzen dot esatia honetan kultura espaiñiarra daukagula begittantzen jatala. Erosotasunak jota, kaka gaiñian egitteko ez ja-kula asko falta pentsatzen dot. Eta gero, kakak garbitu bihar!

Baleike nik ere frantziarrak idealizatuta eukitzia zure eragiña-gaittik, kar kar. Baiña ez dakitt danak zaku berian sartzerik da-guan. Nik daukadan irudixa ona da, halere: R4 zaharra hartuta, eski zaharrekin eta bakerotan baiña oso mailla onian eskiatzen deben bibotedunak etortzen jataz lehenengo. Eta ondoren, Txo-min Perurena bizikletan ibiltzen zaneke mallot eta bizikletekin men-datiak igotzen pasatzen zaittuen bikote nagusixak etortzen jataz burura.

Frantzia pankartiari eta grebiari lotuta dagan herrialde bezela saltzen digue batzuk. Baiña benetan hori ote da frantziarrak des-kribatzeko era egokixena?



IBON SERRANO LASA

“Churchillekin bat egin beharra daukat: «Ez dakit, asko dira, ez ditut denak ezagutzen»”

Horren isilune itzela eragin duzu nigan ezen nire zelulen banaketa prozesua entzutera iritsi naizen, Arkadi. Fun-tsean, identitate krisi garaiotan metropoliarekiko men-pekotasan psikologikoak kezkatzen zaitu.

Euskaldunok horrenbeste neurona eta energia xahutzen dugu mamu horiek antzuki zirikatzen, maiz galdetzen diodala nire bu-ruari bizitzaren lehian desabantaila itzela daukagula artaldearen aurrean. Zorionez, nire laborategi ikerketek frogatu dute *euskloro-siaz* hipotekaturiko garunaren atala beste inork ez duela afizio probetxugarriagoez lantzen. Are gehiago, ezinegon hori, zama baino, lagungarri dela konexio adimentsu eta kognitibo berriak sartzeko gudan. Bejondeigula, *Übermensch* Nietzschetarra bi-laka gaitezke eta.

Menpekotasun mentalera itzuliaz, metodo bat osatu dut de-fentsa mekanismo gisa; Andreitacometelpollo© deritzo eta BARREN-ek aurki argitaratuko du (hala agindu didate). Primizia gisan bi urratsak laburbiltzen ditut:

1. Desaktibazioa.

Zalantza ironiko mesfidatiaren bitartez prezeptu oro epaitu.

Foballa jarri duzu adibide bikaintzat (agian nire logia masonikoan sartzea merezi duzu) baina botereak parapsikologia aurreratua darabilen beste bat aipatuko nuke baita.

Nolatan bestela supermerkatu kate iberiar batek, kosmetika lerro zuri baten onura eta prezioa aitzaki hartuta (nitrosamina gai-tza eragin dezakeen arren), Mirandatik Ebro igaro eta gudan sus-traitzea lortu du azken urteotan? Tele-hipnosiak, tekno-abdukzioak, sozio-lobotomiak eta uhin-feromoniak bakarrik azal dezakete fe-nomeno hau lagun.

Zoritxarrez gehiegizko sarkasmoak sozialki umezurtz eta baz-tertua utz zaitzake, beraz gatozen hurrengo urratsera!

2. Eredu berrien bila!

Frantzia? Churchillekin bat egin beharra daukat frantziarren-ganako iritziaz: “Ez dakit, asko dira, ez ditut denak ezagutzen”

Bai, erlatibitatez hartu beharra dena. Baina badaukagu zer ikasi: barregarri uzten gaituen txakur gorotz batze tasa ikaragarri altua, euskararen giblean emakumeek preziatzen duten munduko bigarren hizkuntzarik politena eta, maiz era basatian bada ere, neoliberalismoaren atzaparkaden aurrean aktibatze gaitasuna.

ANDER MUJIKA

Musikaria



Gure eskusoinua

roak taldearena adibidez: 1960. urtean, Behe Nafarroako herri txiki batean hainbat euskal kanta gitarra elektriko baten laguntzaz kantatu zituzten. Bazirudien aurrerakoiegiak zirela, jende pila bat txistuka hasi baitzitzairen. Nola zen posible euskal kantak gitarra elektriko baten bidez kantatzea!

Beste kontakizun kurioso bat: Euskal Herrian egin zen lehen grabaketa fonografikoa 1914an egin zen Bilbon, eta bertan zer grabatu zuten? Ba Serafin Aranzeta trikitilariaren doinuak. Horixe gure doinuak, betikoak, autentikoak

*“Kultura
gaur egun
idazten ari garen
hori da (gara)”*

grabatuak geratu ziren lehen momentua.

Trikitixa XIX. mendean iritsi zen Euskal Herrira. Atzo. Eta zera galdetzen diot nire buruari: zer esango zuten euskaldun peto haiek Italiatik iritsi berri zen instrumentu haren bidez jotako euskal kanten inguruan? Batek baino gehiagok txistu egingo zion, seguru.

Ondo dago atzera begiratu eta gure historiarekin gozatzea eta honekin emozionatzea. Baina ezin dugu pentsa atzera begirako hori, hain gurea den hori, momifikatu, disekatu eta fosilizatu nahi dugun hori, gaur egungo kultura denik. Begira dezagun atzera, baina distantzia hartuz. Kultura gaur egun idazten gauden hori da (gara). Eraldatzen, berritzen eta bizitzen gaudena gara, ez aurreko mendeetan egiten zuten hura. Argi eduki behar dugu hori, bestela gure buruari txistu egiten amaituko dugu.

Pasa den ekainaren 22an Mikel Markez musikariaren bisita izan genuen Kultur Etxeko Sotoan. Tertuliak programaren baitan, Euskal musikaren errepaso zabala egin zuen hitzaldi musikatuaren birtartez. Anekdotak eta kuriositate askoren bidez azken mendeetako (eta bereziki XX. mendeko) musikari errepaso zabal eta interesgarria eman zion.

Anekdotak eta kontakizun polit eta kurioso askoren artean, pare bat buruan iltzatuta geratu zitzaizkidan. Robles Arangiz familiako lau anaiek sortutako So-



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Euskal Leuzakomun. Iratzeak

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR
943 744 112
Publizitatea: 943 743 704
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
barren@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Zozaok Beleari eta eskutitzak ataletan adierazitako erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Oier Narbaiza **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegui, Oier Narbaiza **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Oier Narbaiza **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zaldua Amaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Irureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurrutxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Javi Muñoz, Rafa Furnier, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julien Ansoa, Eider Iriondo, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Eneiz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Soraluze. **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzikizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► ESKERRIK ASKO

Jaiak amaituta eta behin-behineko balantzea eginda, Altxolako Auzoko 2016ko Jai Batzordeak eskerrak helarazi nahi dizkie San Juan jaietan gurekin batera parte hartzera eta ondo pasatzera hurbildu diren guztiei.

Horrez gain, ekintzak antolatzen modu aktibo eta altruistan jardun duten bizilagun guztiei bereziki eman nahi dizkiegu eskerrak. Egiteko modu honek jaien izaera herrikoia lagatzen du agerian.

Inor ez ahaztea espero dugu. Hala balitz, barkatu iezaguzue, mesedez, oraindik ikasten ari gara eta: Aguas Alzola-Basque Water, La Caixa, Mendaroko Udala, Elgoibarko Udala, Mendaroko Parrokiako Abesbatza, Arturo Rivas eta sendia, Paco Isasti eta sendia, Juan Luis Aguirre, Paco Oñederra, Alfredo Irusta, Guillermo Pedroche, Alex Lariz, Benanzio Lariz, Mikel Mas, Miguel Hidalgo, Unai Kalzada, Iker Kalzada, Urko Urbietza, Rosa Maria Lozano, Begoña Lopez, Jose Mari Alvarez, Agus Garcia, Edu Alonso, Aitor Guerrero, Gorka Luque, Roberto Borrajo, Paolo, Juan Carlos Sevilla, Jose Niebla, Alfonso Rubio, Raul Vazquez, Aitor Moreno, Eduardo Oteiza, Carmen Guerrero, Julene Urbietza, Maialen Alonso, Ane Hidalgo, Andoni Luque, Manex Ibabe, Telmo Ibabe, Mohamed Boukhanfra, David Casado, Edu Zubi eta Eneko De La Horra. Mila esker guztioi.

Altxola auzoko Jai Batzordea

► JUAN MUGERTZA KALEA

Kale honek pairatzen duen arreta txikia dela eta, ez da harrizkoa espazio hau Pista Beltza izenez ezagutzea, eta ez gure herriko atleta esanguratsu baten izenez. Juan Mugertza Espainiako txapeldun izatera iritsi zen distantzia ezberdinetan: 1.500 eta 5.000 metrotan behin baino gehiagotan izan zen irabazle, 1917tik 1921era (biak barne). Horrez gain,

1920an Amberesko Joko Olinpikoetan ere parte hartu zuen proba horietan.

Egoera txar honek bere horretan jarraitzen du; galtzada zelan hondatu den ikusi besterik ez dago (leku askotan pitzaturuta, ur pilaketak eta putzuak euria ari duenean eta abar). Ondorioz oinezkoak lurrera erortzeko arriskua dago, batez ere edadetuak badira. Eta badirudi egoera honek luze joko duela, Elgoibarko Udaltxean Elgoibarko alkate Ane Beitiarekin eta losu Arraiz Hirigintza zinegotziarekin izan nuen bileran jakinarazi zidatenez arazo honen irtenbidea ez dago haien planen artean, ez aurten, eta ez datorren 2017an, beste lehentasun batzuk baitituzte.

Horrez gain, esan beharra daukat Udaltzaingoa ez dela patruilatzen handik, nahiz eta sargentuari eta aipatutako bi Udal agintariei behin baino gehiagotan zerbitzu hori eskatu. Uste dut ez naitzela lekuz kanpoko ezer eskatzen ari: bide publiko hau gainerakoak bezalaxe tratatu dezatela, besterik ez. Horrez gain, kalea Debarreneko Mankomunitateko zerbitzuek presioz ureztatzen dute, haien lanean "tarte" bat dutenean, eta ez herriko beste gune batzuetan darabilten maiztasunez. Harrigarria da, kale honetan eta inguruetan txiza eta bestelakoak sarri aurkitzen direla kontuan hartuta.

Hori dela eta, galdera hau egingo nuke: zer balio dauka gure herriko pertsona esanguratsu bati kale bat eskaintzeak, merezi duen moduan ez bada zaintzen gero?

Juan Angel Garcia Calleja

► ESKERRIK ASKO

Aurten ere Nahaste-Borraste ospatzeko patrozinatzaile, babesle eta lagun-tzaile ezin hobeak izan ditugu, hauek gabe ezingo genuke hainbeste urtetan proba hau aurrera atera. Eskerrak eman behar dizkiegu Ibai Ondo, Usua eta Lan-

broa tabernei gure patrozinatzaile izatearren, eskerrik asko benetan. Baita Nava eta Hodeiri oso kartel txukun eta politik ateratzen lagundu diguzuelako. Eskerrik asko Kala loradenda, Pitxintxu denda, Ongi iturgintza, Astigarraga kirolak, Iriondo taberna, Bire elektragailuak, Iriondo kirolak, Go Bike bizikletak, Iraola rotuloak, Bizkor bizikletak, Sahatxu harategia, Tantaka taberna, Garate jantzi denda, Naiz eta Garari. Eskerrik asko Udal eta Kirol Patronatu, udaltzain eta brigadari egun horretan asko lagundu zengutelako. Eskertza berezi bat egin behar diegu Gure-Bideko Laurentzi eta Manuri, aurtengo papeleo guztia konplikatuta samarra izan da eta meritu makala eduki duzue guri laguntzen.

Eskerrik asko baita korrikalari eta Elgoibarko herriari, egun horretan giro bikaina jarri zenutelako.

Eskerrik asko guztiei!

Kimetz elkarte

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete behar dituzte:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratu dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: birakoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeetara zuzendutako mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleeraz datorren eskutitz argitaratuko.

Elgoibarren EAJ berriz ere izan da lehen indar politikoa eta Mendaron Elkarrekin Ahal Dugu koalizioak hartu du aurrea

A benduko hauteskundeetatik parte-hartzeak %5 egin du behera bai Elgoibarren eta bai Mendaron. Orain sei hilabete bezala, Espainiako Kongresurako Hauteskundeetan EAJ alderdia izan zen nagusi Elgoibarren; Mendaron, berriz, Elkarrekin Ahal Dugu koalizioak lortu zituen boto gehien (EAJk baino bost gehiago).

Elgoibarren, jeltzaleek euren nagusitasuna berretsi zuten domekan 1.834 botoekin. Bozka eman zuten hiru lagunetik batek EAJri eman zion botoa. Hala ere, abendutik hona 162 boto galdu ditu alderdi horrek.

Elkarrekin Ahal Dugu koalizioak abenduko botoei eustea lortu zuen nolabait. Izan ere, abenduan 1.243 boto jaso zituen Ahal Duguk eta Ezker Anitzaren markak 106. Domekan, 1.337 boto eskuratu zituzten, abenduan biak batuta baino hamabi gutxiago.

EH Bildu koalizioak 170 boto galdu zituen abenduko hauteskundeetatik. 1.097 boto eskuratu zituen, eta Elkarrekin Ahal Dugu koalizioak aurrea hartu dio Kongresuko bozetan.



PSOEk ere botoak galtzen jarraitu du. 686 boto eskuratu zituen, abenduan baino 72 gutxiago.

PPk hiru botu irabazi ditu sei hilabete hauetan (441) eta Ciudadanos 157 bototik 141era pasatu da.



Sorpasoa Mendaron

Mendaron lehia estua izan zen jeltzaleen eta Elkarrekin Ahal Dugu koalizioaren artean. Azkenean bost botogatik gertatu zen sorpasoa. Bozka eman zuten hirutik batek koalizio moreari eman zion botoa (290) eta beste batek EAJri (985). Beste herena gainerako alderdientzat izan zen. 169 mendarorrek eman zioten bozka EH Bilduri, 100ek PSOEri, 45k PPri eta 11k Ciudadanos.

Botoaren bilakaera, ELGOIBAR



Botoaren bilakaera, MENDARO



Jai ereduari eta emakumeen parte hartzeari buruzko filma eskainiko dute Mendaron



Mendaro Tratuan taldeak *Festa dezagun gaurdanik geroa* film dokumentala eskainiko du uztailaren 14an Gaztetxean. Bilgune Feministak eta Emaginek elkarlanean, hainbat herritako bizipenak jaso dituzte. Euskal Herriko jai ereduaren erakusleho txiki bat da, emakumeen parte hartzearen eta jai ereduaren inguruko gogoeta feministatik abiatzen dena. Jaiari lotutako hainbat ertz aztertzen ditu filmak: besteak beste, batzorde askotan indarkeria sexistari erantzuteko sortutako protokoloak, *Emakumeok plazara* proiektua, kontzientziazio eta prebentzio mahaiak, talde feministek eta emakume elkarteek jaietan izaten duten presentzia eta ausentzia, Irun eta Hondarrabiko alardeak edota Baztango mutil dantzen afera. Filma 19:00etan eskainiko da eta umeentzako zaintza zerbitzua egongo da. Saioaren helburua gai honen inguruan gogoeta egitea da.

Maitasunez Hezi taldeak beste tailer bat antolatu du eguaztenerako

Maitasunez Hezi taldeak dei egiten die amatasunarekin eta edoskitzearekin sentsibilizatutako pertsoneri eguaztenerako (hilak 6) antolatu duten tailerrean parte hartzeko. Kultur Etxean elkartuko dira 18:00etatik aurrera. Maitasunez Hezik hilabete batzuk daramatza gai hau lantzen Elgoibarren. Edoskitzeari eta amatasunari lotutako bizipenak eta kezkek partekatzen dituzte.

Euskara sustatzeko diru-laguntzak onartu ditu Elgoibarko Udalak

Elgoibarko Udalak 2016rako euskara sustatzeko diru-laguntzak onartu ditu. Hauek dira: Udal Euskaltegitik kanpo euskara ikasteko laguntzak; Barnetegietan jarduteko laguntzak; UEUK, EHUk eta Hik Hasik euskara hutsean antolatutako ikastaroak egiteko laguntzak; establezimenduetako errotilu nagusia eta irudi korporatiboa euskaraz jartzeko laguntzak; euskarazko irakaskuntzaren aldeko jaietarako laguntza; eta herritako enpreetan euskararen erabilera planak bultzatzeko laguntzak. Informazio gehiago, elgoibar.eus webgunean.

Datorren astean iritsiko da Elgoibarrera baserri auzoetako bide bazterretako sasiak garbitzeko makina Mendarotik



Azken egunotan Mendaroko baserri auzoetako bide bazterretan garbitzen jardun du Debemenen enkar-guz ekarritako desbrozatzeko makinak. Landa garapen elkarteak jakinarazi du datorren astean Elgoibarko landaguneko auzoetan hasiko direla zerbitzu hori eskaintzen. Elgoibarren, lehendabizi, Arriaga eta Urruzunoko bideetako bazterretan garbitzea aurreikusi dute eta ondoren pasako da makina gainerako baserri auzoetako bideetan.



“Ijitoen musika aberatsa da, herrialdetik herrialdera asko aldatzen dena”

▶ **ALEX GARATE** MUSIKARIA ETA IRAKASLEA

Zingaros entzun eta ijitoak irudikatzen ditugu. Irudikatu ez, ijito kutsuko doinu nahasiak entzuteko aukera emango dute izen hori duen taldeko kideek uztailaren 19an Elgoibarren. Azken urteotan uda guztiak aprobetxatzen ditu Argentinako talde honek Europa aldean kontzertuak egiteko, eta etxetik gertu denean Elgoibarrera etortzeko aprobetxatzen du Alex Garate taldekide elgoibartarrak. Hogei urte daramatza Alexek Argentinan eta ikasketa ertainen eskola batean matematika irakasle lanetan jarduteaz gain, musikan aritzen da. Hori aurkeztuko du gurean, eta kontzertuaren aurretik proiektuari buruz ez ezik bere bizimoduaren berri ere eman digu.

- IRATI AGIRREAZALDEGI -

◆ Elgoibartarra izan arren Argentinan bizi zara. Zerk eraman zintuen hara?

Karrera bukatu nuenean ikerketa kontuekin jarraitzeko asmoz joan nintzen. Doktoretza egin nahi nuen eta Argentinako Cordoban aurkitu nuen ikerketa horiek egiteko moduko lekua, niretzat interesgarria zen ikerketa talde handia. Bestalde, Latinoamerika ezagutu nahian nenbilen aspaldian, hango kulturak, mendi kulturak, erakartzen ninduen, batik bat. Biak elkartu eta Cordoban (Argentina) egon nintzen hiru urtez doktoretza egiten.

◆ Eta gero zerk geldituarazi zaitu han?

Doktoretza bukatu, Euskal Herrira itzuli eta lau urtez bertan bizi arren, berriz Argentinara bueltatu nintzen. Bigarrenengan ez nintzen joan leku berri bat ezagutzera, baizik eta leku hartan bizi nahi nuelako. Cordoban lagun handiak eginak nituen eta gustuko nuen hango bizimodua. Orduan, ez nuen pentsatu zenbat urtez egongo nintzen eta hogei pasatu dira.

◆ Elgoibarren beharbada zure mendizaletasunarengatik ezagutuko zaituzte. Oraindik mendia da zure afizioa?

Bai, jarraitzen dut mendira joaten. Niri gustatzen zaidan mendi ingurua Andeetako da, Argentinako iparraldean dauden mendiak. Mendi altuak direnez, eta igotzeko denbora dezente behar denez, eskolako udako oporrak baliatzen ditut hara

joateko, hilabete eta erdi-bi hilabete. Aurtengo udan ere han ibili naiz, gutxiago ezagutzen diren mendietan, Mendozan eta La Riojan, Punako basamortu itxurako gunean, hango 5.000-6.000 metroko mendietan.

“Gaztetan, Euskal Herrian nengoela, musikarako nire zaletasuna lagun artean ezaguna zen”

◆ Zure beste zaletasun bat beharbada ezezagunagoa da. Musikan aritzen zara. Zein ibilbide egin duzu Elgoibarren ikasten hasi zinenetik?

Gaztetan, Euskal Herrian nengoela, musikarako nire zaletasuna nire lagun artean ezaguna zen, gitarrarekin hara eta hona ibiltzen nintzen eta kantatzea ere gustatzen zitzaidan, baina sasoi hartan ez nintzen eszenatoki batera igo edo talde batean sartu.

Gero, Argentinan bizitzen nengoela, badira hamar urte, akordeoiarekin jarraitu eta indar handiz hartu nuen etxean. Norbaitek ni ezagutu eta hori jakinda taldekoak bila etorri ziren proiektu bat

zeukatela eta soinu-jole bat behar zutela esanez. Hasieran ez nuen uste sartuko nintzenik, eromena iruditzen zitzaidan ez nuen pentsatzen niretzako moduko gauza bat zenik, baina orain honetan nago.

◆ Zingaros-New Gypsy Tango musika taldeko kide zara. Nolako taldea da?

Hirukotea gara: akordeoia, gitarra eta biolina. Inoiz zertxobait gehitu diogu, baina oinarrian hori gara; eta ahotsa, noski. Taldearen helburua hasieratik definituta dago, beti izan da Europa ekialdeko ijitoen musika lantzea, taldearen izenak berak dion moduan. Oso musika aberatsa da, herrialdetik herrialdera asko aldatzen dena, oso aldakorra eta guretzat oso interesgarria. Hori lantzeaz gain, gu argentinarrak izanik, hango musikarekin lotu eta hango eran egiten dugu, hori da taldearen zentzua. Gero, guk konposatzen ditugu zenbait gauza. Musika tradizionalak ere konpontzen ditugu baina ez dakigu noraino lortzen dugun edo ez. Ez da erraza definitzen, musika berez oso gauza irekia baita. Europa ekialdeko ijitoen musika egiten dugu argentinan eran. Euskal kantuekin ez dugu ezer egin.

◆ Hiru CD dituzue kalean, ezta?

Lehenengo lana orain taldekide ditudan bi lagunek grabatu zuten beste soinu-jole batekin, ni taldera sartu baino lehen. Hasteko lan bat izan zen, lan txiki bat.



Arg.: Claudia Jenniges

Disko hartan kantu tradizionalak bakarrik daude konponketa berezirik gabe, taldearen aurkezpen modura.

Hurrengo bietan parte hartu dut. Bigarren diskoan, *Cirkari'n*, hasieran gutxi sumatzen da ijitoen musikaren eta Argentinakoaren arteko fusioa baina abesti batzuetan bai. Bide hori gehiago nabaritzen da hirugarrenean.

♦ **Kontzertu asko egiten dituzue eta orain bira egiten ari zarete, nondik nora?**

Aurten zortzigarren urtez jarraian Europako bira egiten ari gara taldearekin, uztaile inguruan, hemengo uda sasoian. Europako erdialdean, Alemanian esaterako, asko ibiltzen gara beti. Urte hauetan herrialde asko pasatu eta kontzertu mordo egin ditugu. Aurten ere zazpi herrialdetan ibiliko gara: Polonia, Alemania, Danimarka, Suitza, Austria, Eslovakia eta Euskal Herria. 20 kontzertutik gora izango dira eta horietatik hiru Euskal Herrian: uztailearen 17an Gasteizko Taberna Sonoran; hilaren 19an, Ermuan, jaietako programazioaren baitan; eta uztailearen 19an Elgoibarren, Kultur Etxean.

♦ **Zuretzat berezia izango da jaioterrian jotzea, ezta?**

Lehenengo aldiz joko dugu Euskal He-

“Argentinan egin dudana musika proiektu polit hau Elgoibarren erakustea gauza goxoa da”

rrian eta niretzat oso-oso-oso gauza berezia izango da etxean jotzea. Aspalditik saiatu gara, ni batez ere, etxean kontzerturen bat egiten eta hainbat gestio egin ondoren lortu dugu. Nik neuk nahi nuen hainbeste urte pasa ondoren Elgoibarrera bueltatu eta gainera musika eskaintzea. Lagun zaharrak, familia artekoak bertan egoteko aukera izatea pozgarria da. Bizitza luzea egin dut etxetik hurreratu, eta hala ere, beti saiatu izan naiz kontaktua mantentzen familiakoekin, lagunekin eta herriarekin eta bueltatzen naiz ahal dudana guztietan. Zingarosen Europako birak dirrela eta Europara etortzen naizenean gertatzen naiz Elgoibarrera. Euskalduna, Elgoibartarra sentitzen naiz, hori ez da batere aldatu eta oso naturala da nire bizitza horiek ahal den neurrian elkartzea.

Argentinan egin dudana gauzarik politenatariko bat musika proiektu hau da,

beraz, hau Elgoibarren erakustea niretzat oso gauza goxoa da.

♦ **Argentinan, baina, euskal giroa ere bizi izaten da euskal etxeetan, jakina. Zuk sumatzen eta bizitzen duzu?**


Nik arlo horretan izan ditut aldaketak nire baitan. Euskal Herrietik kanpo hain urruti alde egin nuenean beste leku bat ezagutzea eta hango beste bat bezala sartzea zen buruan nuena. Beraz, han urte asko egin ditut hango gauzen eta izaeraren bila bizi izaten eta ez bertako euskaldunen atzetik, eta urte asko pasatu ditut euskal etxeetara hurreratu ere egin gabe. Urteak aurrera joan ahala eta nahiko finkatuta nagoenez, nireak ez diren beste

kontu batzuegatik tokatu zait euskal etxeetara hurbiltzea eta ezagutu dut han zer giro dagoen. Argentina da Hego Amerikako herrialdeen artean euskal etxe gehien dagoen herrialdea, jende asko mugitzen da, eta giro oso berezia da. Lan handia egiten dute eta oso amorratuak dira batzuk euskararekin eta harrigarria da hain urruti egonik. Gainera, euskal etxeetan mugitzen den jendearen gehiengoa ez da Euskal Herrian jaiotakoa, haien seme-alabak edo bilobak baizik eta hala ere bizi dute euskararekiko eta euskal kulturarekiko zaletasuna.

♦ **Argentinan euskal giroa bizi dute, zuk, ordea, Argentinakoa eta ijitoena ekarriko dituzu gurera. Nola gonbidatuko zenituzke herritarrak Elgoibarko kontzertura?**

Niretzat gustu handia izango da egun horretan aurpegi ezagunak ikustea eta ezagunekin elkartzea erakartzen nauden gauza bat da, baina hori gaingaitu eta gonbidatu nahi nituzke guztiak esanez oso interesgarria dela egiten dugun musika, asko maite dugun gauza bat dela eta intentzio eta indar asko jartzen diogula musikari, beraz, benetan merezi duela ezagutzea.

Alizia Txurruka elgoibartarra onik irten da Istanbulgo aireportuko atentatutik



Atentatu suizida batek 42 hildako eta 238 zauritu eragin zituen Istanbulgo aireportuan.

VIP aretora ihesean sartu zirenek ere ez zekiten ezer. "Jendea hasi zen saltaka eta denak saltaka". Handik denbora batera egoera kontrolpean zegoela esan zieten, baina bapatean jendea berriz hasi zen korrika. "Sartu ginen sukaldean, ezkutatu ginen apalen artean, altzairuzko bandejak hartu genituen tapatzeko eta ezkutu moduan babesteko, tiroka hasten baziren kubritzeko".

Gero aireportua desalojatu behar zela esan zieten, hoteletara bidaliko zituztela. "Irten ginen handik eta dena zegoen jendez beteta", baina informaziorik ez zuten.

Eztei bidaian zihoan bikote azpeitiar batekin, madrildar batekin eta kolonbiar batekin taldea osatu, autobusean sartu eta plaza baten erdian laga zituzten. Hotel batean sartu ziren haiek eta beste asko eta hotelak denei kobratu nahi izan zien. Ordu batzuk geroago hegaldi konpainiak gela ordainduko ziela konfirmatu zien. "Zu han hotel batean zaude baina ez zara seguru sentitzen. Gorputzean estres hori duzu sartuta". 04:30ak eman zieten

gelara joan zirenerako.

Buelta etxera

Atentatuak izan ondoren Taiwanera ez jarraitzeko erabakia hartu zuten Aliziak eta bere lankideak. Biharamunean txartelak aldatzea lortu zuten eta eguazten arratsalderako Loiuko aireportura iritsi ziren.

"Hegazkinean sartu naizenean la-saitu naiz. Gainera korrika ibili gara, denbora justua geneukan eta", adierazi du. Lehen hegazkina hartu nahi zuten etxera lehenbailehen bueltatzeko.

"Uste dut denboraldi handi batean ez dudala hegazkinik hartuko", aitortu du martitzeneko esperientzia gogora ekartzean. "Pelikula bat bezalakoa izan da. Beste atentatu batzuk egon dira, Bruselan adibidez; hau gauza bera da. Beti pentsatzen duzu "hori niri ez zait pasatuko". Eta egunero daude hegazkin pila bat eta mediorik seguruen da, baina guk kontatu dezakegu eta pozik gaude; beste batzuek, ez".

Hasierako sustoa pasatu ondoren hitz egin du BARREN-ek Alizia Txurruka elgoibartarrarekin, Istanbulgo atentatuak gertatu eta ordu gutxira. "Ondo gaude, orain arte egon naiz oso nerbiosa eta oso tensa", adierazi du.

Taiwanera zihoan Alizia, lan bidaia batean, lankide batekin batera. Istanbulgo Atatürk aireportuan eskala egiten ari zen, VIP aretoan. "Oso lasai geunden noiz afalduko genuen pentsatzen. Derrepen-tean jendea hasi zen sartzen oihuka eta saltaka. Orduan gu ere jaiki ginen. Ez genekien zer pasatzen zen. Errefujio bila hasi eta ez zegoen non ezkutatu ere. Aha-legindu ginen nonbait sartzen eta ez ziguten lagatzen. Pixka bat kaotikoa... Gero beste toki batera joateko esan ziguten, pasillo estu batetik, jendea jausten... gaizki, gaizki. Ez genekien zer gertatzen zen".



Udako aisialdi eskaintza martxan

Ikasturtea amaitu ondoren, astelehenean hasi ziren Elgoibarren haurrentzako eta gaztetxoentzako udako aisialdi zerbitzu nagusiak: Atxutxiamaikaren eta Ludotekaren eskaintza bateratua alde batetik eta Kirol Campusa beste alde batetik. Jolasean zein kirolean, haien onena ematen jardungo dute guztiak.

Uztailaren 22ra bitartean, HH2tik LH6ra bitarteko 384 umek Atxutxiamaikaren udaleku irekietan jardungo dute. Batzuek txanda bakarrean parte hartuko dute eta beste batzuek bi txandetan. Aipatutako adin tarteko haurren %32k eman dute izena Elgoibarko Izarrak Elgoibarko Udalarekin lan-kidetzan antolatutako eskaintza honetan. Atxutxiamaikako eta Ludotekako zortzi hezitzaile arituko dira begirale lanetan. Horiez gain, udarako kontratatutako beste 30 ere arituko dira.

Elgoibarko Izarrak eta Udalak bateratu egin dute udako eskaintza aurten. Lehenago Udal Ludotekak aisialdi eskaintza bat





egiten zuten alde batetik eta bestetik Elgoibarko Izarrako Atxutxiamaika egitasmoak beste eskaintza bat egiten zuten. Elgoibarko Izarra Udal Ludotekako zerbitzuaren kudeatzaile izanik, lana bateratzea errazagoa izan dela nabarmendu du Udalak.

Haurren aisialdirako eskubidea oinarri hartuta, Udalak diru-laguntza lerro batzuk jarri ditu abian familia ugarietzako, bigarren seme edo alabarentzako eta gizarte-laguntzen onuradunentzako. Hori dela eta, umeen perfila anitzagoa da orain.

Boluntarioak

Udal Kirol Patronatuak antolatutako Kirol Campusak, bestalde, inoizko partaidetzarik handiena izan du. 220 haur eta gazte parte hartzen ari dira kirol instalazioetan, zutailaren 22ra arte. "Kirolarekin, naturarekin eta lagunekin jolasten oporrak osasuntsu pasatzeko helburua" du Kirol Campusak, Patronatuaren arabera.

EHUn heziketa fisiko eta kirolean lizentziatutako bederatzita monitore arduratzen ari dira kirol jarduera guztiez, eta behar bereziak dituzten haurren ardurua izango dute beste bi begiralek. Azken horien kontratazioan Ongizate Sailaren laguntza izan du Kirol Patronatuak.



Hamar film, pantaila berria eta kalitate handiagoa aurtengo aire libreko zinema emanaldietan

Elgoibarko Udaleko Kultura Sailak antolatutako aire libreko zinema emanaldiak gaur, uztailak 3, hasiko dira *Ocho apellidos catalanes* filmarekin. Zinema kalera atera eta fantasia, abentura eta umorezko hamar film proiektatuko dituzte uztailan. Eskaintza zabal eta anitz honen bidez, iazko edizioko batez besteko 450 ikusle kopurua gainditu nahi dute. Horretarako Udalak 600 lagunentzako eserlekuak jarriko ditu, eta inguruko tabernen laguntzaz 200 kide gehiagorentzako lekua ere egon daiteke

Blu-Ray formatua

Kalegoen plazan aurtan pantaila berria estreinatuko dute eta film guztiak definizio altuan (Blu-Ray formatuan) eskainiko dituzte. Orain arte erabilitako 35 mm-ko proiektorearen ordez Blu-Ray erreproduzitzailerak izango da. Beraz, enpresa espezialista bat kontratatuko da lehen aldiz proiektioaz eta irudi zein soinu tresneriaz arduratzeko.

Gaur hasi eta uztailaren 30era bitartean barixaku eta zapatu iluntzetan izango dira saiokak, eta emanaldi egunean euria eginez gero, proiektioak atzeratu egingo dituzte: barixakuetakoa domekara eta zapatukoa, astelehenera edo hurrengo egunera. Pelikula guztiak 22:30ean hasiko dira. Aurtengo hamar filmetatik bakarrik izango da euskaraz. Honako filmak emango dituzte:

- ◆ Uztailak 1: *Ocho apellidos catalanes*
- ◆ Uztailak 2: *Del reves*
- ◆ Uztailak 8: *Asterix, jainkoen egoitza*
- ◆ Uztailak 9: *Los minions*
- ◆ Uztailak 15: *En el corazon del mar*

- ◆ Uztailak 16: *Mortadelo y Filemon contra Jimmy el cachondo*
- ◆ Uztailak 23: *Sinsajo 2*
- ◆ Uztailak 24: *El viaje de Arlo*
- ◆ Uztailak 29: *Mad Max*
- ◆ Uztailak 30: *Home. Hogar dulce hogar*



San Ferminetako entzierroak emango dituzte Kultur Etxean

Uztailaren 7an hasiko dira San Ferminetako entzierroak Iruñean eta bertatik bertara ikusi beharrean jende askok du telebistaz ikusteko zaletasuna. Egutero telebistaz ematen dituzten entzierro horiek eta lagun artean ikusi nahi dituenak horretarako aukera izango du uztailaren 7, 8, 11, 12, 13 eta 14an. 08:00etan telebistako saioa jarriko dute ikusgai TVEn. Elgoibarko Kultur Etxeko hitzaldi gelan pantaila handian ikusi ahal izango da eta beste urte batzuetan egunero 15-20 lagun elkartu izan direnez, aurtan ere hala izatea espero da.

Mendaroko jaietako adinekoen bazkarirako izen-ematea zabalik

Herriko adinekoen omenez, bazkaria antolatu du Mendaroko Aizpe elkarrekin Udalaren laguntzaz Santa Ana jaietarako. Bazkaria Aizpen izango da uztailaren 24an, domekan, 14:00etan. Beraien omenez egingo den bazkarira joan nahi duten mendaroarren aurrez eman behar dute izena Aizpen bertan, Lagun Betikoak erretiratuaren elkartean edo Roteta dendan uztailaren 1etik 12ra bitartean. Bazkarira joateko 70 urte baino gehiago izan behar dira edo bikoteko batek gutxienez 70 urte baino gehiago eduki behar ditu.

Uztailaren 15era arte aurkeztu daitezke kirol argazki lehiaketako lanak

Haur eta Gazteen Sustapeneko Sailak eta Kirol Patronatuak, Ongarri argazkilari elkarrekin lankidetzan kirol argazki lehiaketa antolatu dute profesional zein zaleentzat. Papereko argazkiak, koloretan nahiz zuri beltzean eta tratatzeko edozein teknika erabilia onartuko dituzte. Bakoi-tzak gehienez lau lan aurkeztu ditzake hauraren 15a baino lehen helbide honetara: Olaizaga kiroldegia, 32 posta kutxa. San Roke kalea. 20870 Elgoibar. Irabazleak abuztuaren 22an jakinaraziko dituzte eta ondoren ikusgai egongo dira abuztuaren 22tik 31ra bitartean, Kultur Etxean, 18:30etik 20:30era bitartean.

Bertso eskolako ikasleek jende aurrean erakutsi zuten bertsoan ikasitakoa



Beinke bertso eskolan aurten ere makina bat ikasle aritu dira bi taldetan banatuta Unai Rodriguez irakaslearen esanetan. Ikasturte osoan jardun ostean, senideen aurrean erakutsi zuten ikasitakoa. Txikienek bertso eskolan prestatutako himnoa abestu, eskolan ezagututako bertsolarien berri eman eta ikasitako arauak erabiliz gindako bertsolariak abestu zituzten. Nagusiek agurra abestu; banaka, gaia emanda, etxean prestatutako bertsoak botu; eta denei gai bera jarrita, bakoitzak bere bertsoa osatu zuen. Jendaurreko bat-bateko saio bat irudikatu zuten bertsoak etxetik prestatuta eraman arren. Meriendarekin amaitu zuten ikasturtea.

Martitzenerako aurkeztu behar dira jaietako programaren azal lehiaketako lanak

Elgoibarko Udalaren Kultura Bartzordeak 2016ko San Bartolome Jaietako programaren azala aukeratzeko lehiaketa antolatu du. Teknika librea (argazkia, pintura, marrazkia, collagea, eta abar) erabili ahal izango dute egileek baina ezinbestekoa izango da *Elgoibar, San Bartolome jaiak 2016* testua ipintzea irudiarekin batera. Nagusiek bi lan aurkeztu ahal izango dituzte gehienez. Irabazleak 700 euroko saria jasoko du. 18 urtera bitartekoek kartelerako irudia aurkeztu beharko dute eta hauen artean diru sariak ez diren beste seiopari banatuko dituzte. Lanak aurkezteko azken eguna uztailaren 5a da eta 13:00ak baino lehen Kultur Etxera eraman beharko dira. Lehiaketako baldintza zehatzagoak honako webgune honetan daude: elgoibar.eus

San Juanen ondoren San Pedro jaiak segida izango dute asteburuan



San Juan suak itzali ziren joan zen asteburuan Mendaron, Altzolan eta Elgoibarren, baina jaiak oraindik jarraitzen dute. Sanpedroak ospatzen ari baitira Idotorben. Eguaztenean Santuaren omenez prozesioa egin ostean, pilota partida eta auzotarren bazkaria izan zituzten. Jatekoa izan ohi da jaietako osagai nagusia eta asteburua ere lagun arteko afariarekin hasiko dute. Mus eta bolo txapelketak, ume jolasak, giza proba, dantza eta idi-probak izango dira besteak beste barixakutik domekara, guztia trikitez girotuta. **BARREN**-eko agendan, 22. orrian, dago Idotorbe-San Pedron egingo dituzten ekitaldien egitaraua.



Iñigo Larizek Nahaste Borrasteko errekorra ondu du hamasei segundoan berdindu du garaipenetan


Nahaste Borraste proban lortzen duen seigarren garaipena eskuratu zuen Iñigo Larizek joan den barixakuan. Hala, Martin Domirere sei alditan irabazi baitu Kimetz elkarteak antolatzen duen proba berezia. Aurten, 32. edizioan, 44 lagunek hartu zuten parte, ondorioz zorua irristakor bazegoen ere, Larizek iaz ezarri zuen marka ondu zuen, 16 segundoan. Hamazazpi minutu eta 34 segunduekin egin zuen bigarren (18:19) eta Asier Muruak hirugarren (18:25). Emakumezkoetan, Nahaste Borrasten lortzen duen 11. garaipena eskuratu zuen borarekin (argazki gehiago eta sailkapenak barren.eus).

Antton Iranzo da CD Elgoibarko presidente berria

CD Elgoibarrek urteko batzar nagusia egin zuen ekainaren 23an, eta Antton Iranzo Tornos da CD Elgoibarko presidente berria (argazkian, erdian), azken lau urteetan presidente izan den Jesus Mari Unzillari lekukoa hartu eta gero. Hamabost lagunez osatutako zuzendaritza gidatuko du Iranzok Club Deportivo Elgoibarrek dituen erronkei aurre egiteko asmotan, horietako bat 2017an ospatuko duten mendeurrena. Hain zuzen ere, mendeurrenerako prestatzen ari diren liburutako argazki zaharrak behar dituztela azaldu dute, beste behin ere. Era berean, fisioterapeuta behar du klubak. Interesatuek honako telefono zenbakira deitu dezakete: 675 706 723

Diru kontuei dagokionez, 165.018 euroko gastuak izan ditu klubak 2015-2016 denboraldian eta 165.018 eurokoak izan dira sarrerak. 49.543 eurokoa da CD Elgoibarren ondarea.





eta Martin Dominguez

uez berdindu du garaipen kopuruan, hark rterean emakume bakarrak. Euri langarraren doan osatu zuen proba. Jorge Gonzalezek u zuen Ainhoa Lendinezek, 20:54ko den-

Tenis eta padel txapelketako finalak, bihar

40-15 tenis elkarteak antolatutako tenis eta padel txapelketako finalak jokatuko dituzte, bihar (uztailak 2) Mintxetan. 10:30ean hasiko dira ekitaldiak emakumezkoen padel finalarekin, eta segidan, gizonezkoen finala jokatuko dute. 12:00etan tenis finala izango da. Segidan, sariak banatuko dituzte. Iaz jokatutako txapelketetan, Ane Iturbek eta Nerea Salasek, emakumezkoetan, eta Jon Etxaidek eta Alberto Gonzalezek, gizonezkoetan, irabazi zuten padel txapelketa. Tenisean, berriz, Ruben Lizarralde irabazi zion finala Sergio Urrizari.



Markos Beraza nagusi Idotorbeko Cross Country txapelketan

San Pedro jaien barruan, Euskadiko eta Nafarroako Cross Country Motor Txapelketako proba puntuagarria jokatu zuten domekan Idotorbe eta Saturixo bailaretan. Markos Beraza pilotu nafarrak irabazi zuen proba eta Josu Artola amezketarra sailkatu zen bigarren postuan. Sailkapen nagusiko liderra da Artola. Afizionatu mailan loritz Odiaga gailendu zen eta Josu Baraibar juniorretan. Beteranoetan Pedro Luis Gorospe izan zen nagusi. Urnorbizako kideen berbetan pilotuak gustura gelditu ziren prestatu zieten ibilbideekin eta Idotorbe inguruko zelaietan "giro ona" izan zen.



Zuzendaritza berria aurkeztuko du Sanlok batzar nagusian

Bazkideen batzar nagusia egingo du Sanlok gaur, 19:30ean, Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Kirol eta ekonomia alorreko balorazioak egingo dituzte, eta datorren denboraldirako helburuen berri emango dute. Aurrekoiez gainera, presidente eta zuzendaritza berria aurkeztuko dituzte.

Ehunmilak probari ongiatorria

Ehunmilak ultra-traileko korrikalariari ongiatorria egiteko ekitaldia antolatu du Elgoibarko Ehunmilak Taldeak. Beasainen izango da irteera uztailearen 8an, 18:00etan, eta gauerdian inguruan iritsiko dira Azkarate gainera. 22:00etatik aurrera batuko dira Elgoibarko mendizaleak Azkarate inguruan.

Unai Usobiaga garaile Udanako ingoeran

Udanako hamaikagarren auto ingoera jokatu zen ekainaren 25ean, Oñatin, eta 70 pilotuk hartu zuten parte. Aitor Zabaleta bergarra izan zen guztietan azkarrena (02:14.298). Turismoetan, A mailan, Unai Usobiaga elgoibartarrak eskuratu zuen lehen postua AC Sport autoarekin.



LANA.....**Eskaerak**

Elkarteen lokalak eta portalak garbitzeko prest. 617 571 210

Garbiketa lanetan, zein umeen eta adinekoen zaintzan aritzeko prest nago. 680 037 575

Adinekoak eta umeak zainduko nituzke, baita garbiketa lanak egin ere. 631 353 468

Administratzaile lanetan (ikasketak), bidaia agentzietan (esperientzia) edo dendari lan egiteko prest. 632 480 108

Edozein lanetarako prest. Garbiketa lanetan edo pertsona nagusiak zein umeak zaintzen esperientzia. 602 193 095

Edozein lanetarako prest. Garbiketa lanetan edo pertsona nagusiak zein umeak zaintzen esperientzia. 612 216 458

Umeak zaintzen lan egiteko prest nago. Esperientzia eta erreferentzia onak. 632 747 703

Pertsona nagusiak zaintzeko prest, asteburuetan. Esperientzia eta erreferentzia onak. 648 039 187

Pertsona nagusiak zainduz egingo nuke lan. Esperientzia handia daukat. Orduka, gauak edo ospitaleko zaintzak.

Etxeok garbiketarako egiteko ere prest. 633 808 931

Geriatría laguntzaile adinekoak zaintzeko prest. Orduka aritzeko eta paseatzera ateratzeko prestutasun osoa. 646 931 162

Adineko pertsonak zaintzen edo tabernen eta portalen garbiketara lan egiteko prest. 631 790 555

Adinekoak zaintzen, garbiketa lanetan edo sukaldari laguntzaile aritzeko prest. Interna edo orduka. 631 132 553

Adineko pertsonak zaintzeko prest. Orduka, interna edo gauetan. 628 014 327

Adineko pertsonak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. 637 966 749

Adineko pertsonak edo umeak zainitzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. 625 857 164

Adineko pertsonak edo umeak zainitzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. Orduka edo interna. 631 212 497

Matematika, kimika eta fisika eskolak ematen ditut, batxiler mailara arte. 943 743 926

Ingeleseko eskola partikularrak ematen ditut. Bakarka edo talde txikietan. 685 706 001

Adineko pertsonak edo umeak zainitzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. Etxeak, tabernak eta elkarteak garbitzen ditut. 628 738 472

Pertsona elgoibartarra adinekoak zaindu, paseatu, janaria prestatu eta etxeok lanak egiteko prest. Esperientzia eta erreferentzia onak. 660 511 781 edo 943 742 330

Adineko pertsonak edo umeak zainitzeko prest, orduka edo interna. Garbiketa lanak ere egiten ditut. Esperientzia daukat. 616 457 254

Adineko pertsonak edo umeak zainitzen ditut. Garbiketa lanak egiteko ere prest nago. 632 564 679

Eskaintzak

CD Elgoibarrek fisioterapeuta behar du. 675 706 723

Neska euskalduna behar da uztailean, goizez, bi ume zainitzeko. Harremanetarako telefonoa: 665 720 335

Astean bi orduz, arratsalde, irakurtzen erakutsiko lidakeen norbaiten bila nabil. 632 279 996

Aisia Deba hoteleko harreraren udan lan egiteko pertsona bat behar da. Harreraren esperientzia izatea eta hizkuntzak jakitea kontuan hartuko dira. Bidali curriculum: deba@aisiahoteles.com

Zerbitzaria behar da Malape tabernan lan egiteko. Sukaldean lan egiten ere jakin behar du. Curriculum Malape tabernan laga.

ETXEBIZITZAK.....**Alokairua**

Alokairuko pisu bila ari naiz. 3 logela. Ahal dela Elgoibarko erdigunetik gertu. 655 712 021

GARAJEAK.....**Salgai**

Debako hondartzan garaje itxia salgai. Lehenengo solairuan. 655 712 021

BESTELAKOAK.....

Itsasoa, arrantza, edo-eta urpekaritza gustatzen zaizkion pertsona baten bila nabil Mutrikuko portuan fueraborda bat erdibana erosteko. 669 293 423

Gps Garmin Etrex galdu dut, Karakatek Berazetara jaisten den BTT bidean. Aurkitu duenak mesedez deitu dezala telefono zenbaki honetara. 646 225 465

Zilarrezko pultsera bat galdu dut. Balio sentimental handia du. Norbaitek aurkitu badu deitu, mesedez. 628 784 502

Lepoko bat aurkitu nuen ekainaren 4an, Txarriduna taberna kanpoaldean. Norbaitek galdu badu deitu. 660 056 219



P. M. Urruzuno kalea, 6 behe - Elgoibar
 ☎ **943 743 140 - rosapf@telefonica.net**



Bizi naizen komunitatean lehen solairuko etxebizitzek terrazak daukate. Terraza horietako jardinerak eta loreontziak hezetasunak eragiten ari dira behe solairuko merkataritza-lokaletan. Arazo sortzaileak horiek izan daitezkeela uste dugun arren, baliteke inpermeabilizazio arazoak egotea behe zolatuan. Jakin nahi nuke konponketa gastuak lehen solairuko bizilagunei inputatu ahal izango zaizkien.

Hezetasuna nondik datorren zehazten duen adituaren txostena beharrezkoa da. Baina loreontziek eta jardinerak ez badute, beren pisua dela-eta, asfaltozko oihala zulatu, gehienetan estankotasun arazoa izaten da eta hori etxearen bizigarritasun baldintza da. Hezetasuna behe zolatuen inpermeabilizazio arazoak eragindakoa bada, obra derrigorrez egin behar da eta legearen arabera jabeen komunitateak ordainduko luke.

Legeak dio derrigorrezkoak direla eraikinaren eta honen zerbitzu eta instalazio komunak ezinbesteko mantenu lan eta obrak. Horren baitan daude: segurtasun, bizigarritasun, irisgarritasun lanak edo administrazioak zein legeak eraikina kontserbatzeko jarritako arauen arabeko beste edozein obra.


AHOLKUA: Konponketa gastuak ezingo zaizkie hasieratik lehen solairuko etxetxabeek inputatu, hezetasuna etxebizitza horien jabeek izandako jokaera desegoki baten ondorioz gertatu ez bada behintzat. Beraz, hori frogatu egin beharko litzateke.

ROSA M^a PINTADO: Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749





Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Go-rane**, igandearen 10 urte egin zenituelako. Muxu handi bat familia-koen eta bereziki kerren partez.



Zorionak, **neska handi**, atzo bi urte bete zenituelako. Etxeko partez.



Zorionak etxeko **printzesari**, zure bosgarren urte betetzean. Etxeko guztien, bereziki zure ahizpa Nahiaren partez.



Zorionak, **Mar-ikel**, larunbatean 9 urte, txapeldun! Ondo pasa. Muxuak familia, bereziki Jon, Jakes, Elene eta Paulak.



Zorionak, **Amanda**! Zure 13. urtebetetzean. Etxeko guztien eta bereziki Jairoren partez.



Zorionak, **Mikel**. Uztailaren 5ean 4 urte. Muxu bat guapisimo.



Zorionak, **Jon**. Uztailaren 7an 7 urte. Muxu handi bat denon partez, txapeldun.



Nahia, zelako suertea dugun zurekin. 8 urte pasa eta egunetik egunera jatorrago. Zorionak amama eta izeko.



Gure **Nahia** panpoxa. Elgoibarko larrosa. 8 urte pinpirin airoa. Horregatik uztailaren 3an, 8 zortzi kandela piztuko ditugu pastel arrosan.



Zorionak, **aittitta** eta **amama** zuen 50. urteurrenean. Jarraitu hain zorionsu izaten. Aimar era liben partez.



Zorionak, **bikote**! zuen 50. urteurrenean. Jarraitu horren ondo urte askotan. Muxu bana familia guztiaren partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3,50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

A. Garate
Era guztietako igeltseritza lanak egiten aditua
angelmgarate@gmail.com
Santa Ana kalea, 28 behea - 2. zkia - 20870 Elgoibar
610 226 651

b BARREN
Jarri ezazu zure publizitatea
BARREN astekarian edo
www.barren.eus webgunean
943 744 112
Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

Uzuri ELGOIBAR - DEBA
optika audio
www.uzurioptika.com
Uretatik babesteko tapoiak NEURRIRA!
Babestu zure belarriak
STOP OTITIS!

1 BARIXAKUA

19:30 Sanlo Eskubaloi Taldeko bazkideen urteko batzarra. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

Idorbe-San Pedroko jaiak

21:00 Lagun arteko afaria San Pedro elkartean.

Ondoren, VII. Mus txapelketa.

2 ZAPATUA

10:30 Tenis eta padel txapelketetako finalak. Padel: neskak 10:30 eta mutilak 11:30. Tenis: 12:00. Antolatzailea: 40-15 Tenis Elkartea. Mintxetako pistetan.

Idorbe-San Pedroko jaiak

16:30 Ume-jolasak eta Niala magoa.

18:30 Giza proba. Tope Natxiok taldea.

21:00 Lagun arteko afaria, San Pedro jatetxean.

23:30 Gaupasa, Iñaki Laja eta Andoni Larrañaga trikitilariekin.

3 DOMEKA

10:00 Xake txapelketa. Euskadiko zirkuituko taldeak. Antolatzailea: Elgoibarko Xake Taldea. Kalegoen plazan.

Idorbe-San Pedroko jaiak

10:30 Meza.

Ondoren, Salda eta txorizoa, San Pedro elkarteak eskainita.

12:00 Dantza, Euskal Dantzari Taldeekin (auzoko umeak protagonista).

13:00 Bolo txapelketa.

17:30 Idi demak. Parte hartzaileak: Artaso, Soarte eta Kamiñoko.

Egun guztian, Baltzola anaia trikitilariak.

4 ASTELEHENA

9:00-13:00 edo 10:00-12:30 Mendaroko udaleku irekiak uztailaren 22ra arte. Antolatzailea: In Leike. 4-6 urte artekoak Ludotekan eta 7-12 urte bitartekoak Azpilgoetako Kultur Etxean.

21:00 Nagusien danborradako izen-emaitea eta entsegua. Mendaroko Ikastolan.

6 EGUAZTENA

18:00 Edoskitze taldearen tailerra. Maitasunez Hezi elkarteak. Kultur Etxean.

21:00 Nagusien danborradako entsegua. Mendaroko Ikastolan.

7 EGUENA

8:00 San Ferminetako entzierroak telebistaz zuzenean 7tik 14ra (asteburuan izan ezik). Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

8 BARIXAKUA

10:30-13:00 San Fermin txiki. Antolatzailea: Atxutxiamaika eta Udal Ludoteka. San Bartolome eta Errosario kaleetan zehar.

21:30 Bideo foruma: *Madres e hijas*. Dinamizatzailea: Loredi Salegi. Antolatzailea: Haizea. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

22:30-02:00 Ehunmilak Ultratrail lasterketari ongietorria. Antolatzailea: Elgoibarko Ehunmilak Taldea. Azkaraten.

**ZEINTZUK DIRA
ETXEBIZITZA
EROSTEAGATIK
DAUDEN ZERGA
ABANTAILAK?**

Lehenengo abantailaz, etxebizitza erosi aurretik goza dezakegu etxebizitza kontua produktuarekin. Bertan, urtero, 8.500 eurora arteko ekarpenak eginez, errentaren aitortuenean %18 itzuliko digute, gehienezkoa 1.530 euro izanik. Etxebizitza datozen sei urteen barruan erosi beharko da eta bestela jasotako dirua itzuli beharko da.

Behin etxebizitza erositakoan, eskatutako mailagaren gaineko kenketak izango ditugu eta gehienezkoa beti 1.530 euro horiek izango dira pertsonako eta urteko. Bikote baten kasuan 3.060 euro gehienez itzuli ahal izango dizkigu Ogasunak. Beste ezaugarri garrantzitsu batzuk honako hauek dira:

- Ogasunak pertsonako itzuli diezagukeen gehienezko kopurua 36.000 eurorokoa da; urteko gehenez, esan bezala, 1.530 euro
- 30 urte azpitik izanez gero urteko gehinekoa 1.955 eurora igotzen da pertsonako.


Atal honetarako galderarik proposatu nahi izanez gero idatzi helbide elektronikoa honetara: galderak@bankoia.es



I. URTEURRENA

Juana Lizundia Zabaleta

2015eko ekainaren 30ean hil zen, 80 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, uztailak 2, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zuretik eskerrak.



Zinea (Kalegoen plazan)



'Ocho apellidos catalanes'

1 barixakua, 22:30



'Del revés'

2 zapatua, 22:30

Zuz.: Emilio Martinez-Lazaro. Espainia, 2016. 99 min. Komedia. Aktoreak: Dani Rovira, Clara Lago, Karra Elejalde, Carmen Machi, Berto Romero, Belen Cuesta, Rosa Maria Sarda, Alfonso Sanchez, Alberto Rodriguez, Agustin Jimenez. Ocho apellidos vascos filmaren arrastoari segika dator filma. Koldo (Karra Elejalde) larritu egingo da bere alaba, Amaia (Clara Lago), Rafarekin (Dani Rovira) harremana utzi eta mutil kataluniar batekin (Berto Romero) maitemindu dela jakitean. Sevillara joango da Rafarengana. Hura konbentzitu nahi du Kataluniara lagundu diezaien. Amaia hango gaztearen besoetatik eta bere girotik askatu nahi du. Ez da gomendagarria 7 urtetik beherakoentzat.

Zuz.: Pete Docter. Estatu Batuak, 2015. 102 min. Marrazki bizidunak, komedia eta familia. Riley nes-katoaren bizimoduan alaitasuna da nagusi, baina beste era batzuetako sentimenduak ere gozaten eta pairatzen ditu. Hala ere, Rileyk ez du ulertzen tristurak zergatik izan behar duen lekua bere bizitzan. Beraz, zoriona eta tristura abentura arriskutsu batean murgilduko dira eta horrek, irauli egingo du Rileyren mundua. Adin guztietakoentzat.

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

G
U
A
R
D
I
A
K

09:00 - 22:00

1 Barixakua ETXEBERRIA
2 Zapatua FERNANDEZ
YUDEGO (9:00-14:00)
3 Domeka FERNANDEZ
4 Astelehena YUDEGO
5 Martitzena ORUESAGASTI
6 Eguaztena BARRENETXEA
7 Eguena IBAÑEZ
8 Barixakua GARITAONANDIA

22:00 - 00:00

Astelehenetik domekara
ETXEBERRIA (Elgoibar)
Santa Ana, 1
Tel.: 943 740 140

00:00 - 09:00

IRAUNDEGI (Eibar)
Fermin Calbeton, 19
Tel.: 943 201 110

* Fernandez: Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)
Tel.: 943 756 142

* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze)
Tel.: 943 751 638

* Oruesagasti: Kalebarren, 9
(Soraluze) - Tel.: 943 751 384

Telefono interesgarriak

Larrialdiak.....112

ELGOIBARKO UDALA

Udaltzaingoa.....943 741 394
Arreta bulegoa.....943 741 050
Idazkaritza.....943 743 700
Bake epaitegia.....943 741 630
Gizarte Ongizate Saila.....943 741 008
Hirigintza.....943 744 384
Artekaritza.....943 744 414
Berdintasan Saila.....943 741 050
Euskara Saila.....943 744 366
Kultura Saila.....943 742 158
Udal liburutegia.....943 743 525
Haur eta Gazteria Saila.....943 531 319
Ludoteka.....943 748 883
Gaztelekuia.....943 743 228
Garapen Ekonomikoa.....943 741 050
Emugi.....943 747 371 / 688 684 633

Kiroldegia.....943 744 415
Mintxeta.....943 747 356
Musika eskola.....943 742 145
Udal euskaltegia.....943 742 731
Eguneko zentroa.....943 744 565
Kontsumo bulegoa.....943 743 088
Jubilatu biltokia.....943 740 526
San Lazaro egoitza.....943 740 296

MENDAROKO UDALA

Mendaroko Udala.....943 033 282
Liburutegia.....943 033 291
Bake Epaitegia.....943 033 289
Eguneko Zentroa.....943 031 746
Mendaro Ikastola.....943 756 141
Haurtzaindegia.....943 755 219
Musika Eskola.....943 244 275
Taxia.....607 57 57 28
Ospitalea.....943 032 800

BESTELAKOAK

BARREN.....943 744 112
Elgoibarko Izarra.....943 741 626
Gurutze gorria.....943 743 864
Itxaropen telefonoa.....900 840 845
Mankomunitatea.....943 700 799
Debemen.....943 744 067
Gipuzkoako Ogasuna.....902 100 040
AEK euskaltegia.....607 601 423
KZgunea (Elgoibar).....943 023 640
KZgunea (Mendaro).....943 756 013
Taxi geltokia.....943 740 898
Eusko Tren.....902 543 210
Lurreldebus (Mugi informazioa)943 000 117
Lurreldebus (Lineak)943 415 208
Jokalari anonimoak657 710 156
Alkoholiko anonimoak.....629 141 874
Correos - Posta.....943 741 547



Iosu Juaristi

Ainhoa Lendinez



Klik polita, Fotoiosu, baina zaila! Liztor bat, (armiarma-)hari batetik zintzilik? Lehen begiratuan, ez dauka zentzu handirik. Gauza txikien handitasunaz idaztea pentsatu dut: liztorrak ere izango du zereginik kate trofikoan. Baina ni neu ere dingilizka geratu

naiz, hitzak elkarri lotu ezinik. Eten bat egin dut arnasa hartzeko, eta egunkariaren azalak ikusi ditut. Hari batetik zintzilik dauden errealitate, protagonista eta gertakariz josita daude egunkariak. Asteartea da. Lesbiana, Gay, Bisexual eta Transexualen Harrotasun Eguna. Aurten ere hainbat ekintza egin dira mundu osoan ospatzeko. Bilbon ere bai. Bai, Bilbon, hiri aske horretan. Udaltxe aurrean ostadarraren maindirea astindu duten bitartean, udaltzainek Egirleta ingurua patruilatu dute. Gay-en elkargune

omen zen eremu horretan jazarpena salatu zuten iaz zenbait bizilagunek. Egun berean, asteartean, jakin dut lagun bihotzeko batek minbizia daukala. Orain 7 urte, espetxetik atera berritan, egin zituen adierazpenak berrikusi ditut, torturak salatu zituenekoak. Jaurlaritzak 1960-2013 urteen artean izan diren torturen ikerketaren ondorioak kaleratu dituen egunean iritsi zait berria. 4.009 ebidentzia. Gehiago ere izango dira, eta dira. Horra milaka euskal herritarren duintasuna, hari mehe batetik zintzilik. "Bizitzan denok egiten dugu irrist; behin baino gehiagotan, gainera. Ez erortzea da kontua". Hala esan zidan behin lagun batek. Baina ez al genuen eroriz ikasi denok oinez? Liztorra ere erori da haritik halako batean, eta hegan egin du ihes. Alde. Exit. Zenbat aldiz egon zara zu, hariari helduta, erortzeko beldurrez? Ni neu askotan, eta erori ere egin naiz, baina jaiki eta indartsuago ekin diot berriz, gorako bideari.

"Zenbat errealitate hari batetik zintzilik"



Jesus Mari Astigarraga Garate

"Katalo"

2016ko ekainaren 28an hil zen, 70 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

**Laster arte ezpainetan
utzi gaituzu penetan
orain gure ametsetan
bizirik zaude benetan
zeruko izarretan.**



I. URTEURRENA

Bienvenida Gonzalez Jara

2015eko ekainaren 29an hil zen, 87 urte zituela.

**Urtebete zu falta gure aldamenean,
beti egongo zara gure bihotzean**

Sendiak



I. URTEURRENA

Martin Lariz Muguruza

2015eko ekainaren 30ean hil zen, 88 urte zituela. Haren oroimenez

I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, uztailak 2,
arratsaldeko 19:00etan Altzolako San Juan Bautista parrokian.

Joango zaretenoi aldez aurretik eskerrak.



**Ignacio
Zubia Arregi**

(2015-07-08)

**Ramona
Gorriti Aranberri**

(2015-07-02)



Gremioen gida

Aroztegiak
Elektrizitatea
Igeltseritza
Iturgintza
Leihoak
Pintura

ARROZTEGIAK

**iraolagoitia**
aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutz-gain Industriagunea, 9
20850 Mendara
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485

www.iraolagoitia.com

**MAR**
ARROZTEGIA

Olaso industriagunea, 17 beheha
943 531 471
609 054 978
carpinteriamar@hotmail.com



**BIENA S.L.**
ARROZTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax: 943 743 116
www.biena.eus
info@biena.eus



Arroztegia · Carpinteria

**ASIMA**

Ermuaranbide, 18 - Elgoibar

687 150 226
650 026 631
636 886 322
943 744 225

asimaaroztegia@gmail.com

**Ulazia**

ARROZTEGIA ETA ENBALAJEAK
Albitxuri industriagunea, 1-O/ 1-P

943 740 547



ELEKTRIZITATEA

**iparelek s.l.**
elektrizitatea

Kilimon hiribidea, 1 - Mendara
943 530 356

iparelek@gmail.com
iparelek@iparelek.com

**ELECTRICIDAD
AZPELETA**

San Frantzisko, 51
Elgoibar
Tel.: 943 741 238

**CARRANZA,**
ELEKTRIZITATEA

Uparitzaga 10, 6.B
Elgoibar
karranzajl@gmail.com


Tel.: 943 741 280
Jose Luis: 626 555 999

**electricidad
PEROSANZ**

www.electricidadperosanz.com
eibar@electricidadperosanz.com

Bergain 17, AC beheha
Tel.: 943 202 209
Fax: 943 206 045
20800 EIBAR

Heriko Enparantza 5
Tel.: 943 033 033
20850 MENDARA

**egoluz**

ELEKTRIZITATEA S.L.
(lehen TAES)

Ego-Gain, 9 AC
20600 EIBAR

Andres: 630 957 345
Raimon: 677 512 462
Bulegoa: 943 200 697

IGELTSERITZA

**E. ARANDIA**
ERREFORMA ETA LEIHOAK
Urasandi, 22 beheha - Elgoibar
Tel.: 605 705 204

Gremioen arteko
koordinazioa.
Pladurrekin ere
lan egiten dugu.

**CAMILLO
ALVAREZ**

Jardiñeta, 25 beheha
EIBAR

Ernesto: 620 060 104
Fran: 600 465 789

ITURGINTZA

**SANTANA**
Igor Santana

ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea 17, beheha
Elgoibar
943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com

**PAGOERROTA
ITURGINTZA**
Heriko Enparantza, 10 beheha
MENDARO
943 75 60 44 / 628 529 692
Faxa: 943 75 60 37
pagoerrotaiturgintza.com
www.pagoerrotaiturgintza.com

**ongi** Iturgintza

Pedro Muguruza Etorbidea, 11
ELGOIBAR

Tel.: 943 254 522

Faxa: 943 254 523

ongi@ongielgoibar.com

www.ongielgoibar.com

**Ibámar**
ITURGINTZA

San Roke 10-A, beheha B
Elgoibar
Floren Cid: 647 463 436
ibamar@euskalnet.net

**TELLABIDE**
ITURGINTZA


Azpilgoeta 7 beheha - Mendara
Tel.: 943 755 062 / 607 755 062
iturgintzatellabide@hotmail.com

**ZUBIZARRETA**
instalazioak

Ubitarte plaza, 5 beheha
Elgoibar

943 740 789
650 586 144



**PAGOAGA S.A.**

BULEGOA ETA ERAKUSKETA
Pedro Migel Urzuzo, 8
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 565
bienda@pagoagasa.com
www.pagoagasa.com

BILTEGIA
San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279
tailler@pagoagasa.com

ELGOIBAR

LEIHOAK

**LODOSO
LEIHOAK**

SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 223
lodosofj@gmail.com
Tel.: 943 74 34 90

PINTURA

**BIOK**
dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552
606 431 120

biok@biokdekorazioa.com

Gremioen
gida